

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Bezeroek gure produktua eskura eduki dezaten, hainbat funtsezko jarduera egin beharko ditugu. Atal honetan, Aukaren ekoizpena lortzeko bakoitzak zer lan mota egin behar duen eta salmenta nola bideratuko dugun azalduko dugu.

Produktuaren prestakuntzari dagokionez, taldeko partaide guztion artean egingo dugu eginkizun hau. Hasteko, pieza guztiak eskuragarri eduki beharko ditugu: aurikularrak eta diseinatutako kaxa. Ondoren, bi piezak elkartuko ditugu; aurikularrak kaxetan modu egokian kokatuko ditugu. Denbora luzeko prozesua delako egingo dugu lauron artean. Gure produktu finala prest dagoenean, hau da, pieza guztiak muntatuta daudenean; plastikozko poltsetan sartuko ditugu, ondoren kaxetan, eta azkenik, bezeroaren datuak inprimatu eta Correos-era eramango ditugu.

Dendetan salduko direnak berriz, ez dute kartoizko kaxarik eramango; hau da, dendatarak kaxa handiak eramango ditugu aurikularrez beteta. Hauek plastikozko poltsa txikietan egongo dira; poltsa bakoitzean aurikular bana egongo da eta saltzerako garaian bezeroari poltsa honetan eskainiko zaio produktua. Herriko dendetara guk eramango ditugu eta Fnac eta Media Markt dendatarak bidaltzeko Correos-era eramango ditugu kaxak.

Aukaren berriak azaltzeko eta bezeroekin komunikazioa edukitzeko, Internet erabiliko dugu, zehazki, sare sozialak; lan honetaz Eneko arduratuko da. Lehendabizi, sare sozialetan aukaren eguneratzeak egunero igoko ditu, produktuaren berriak erakutsiz; hala nola, diseinu berriak, mekanismo berriak, aurikular mota ezberdinak..., hau da, marketin-a bere esku egongo da. Gainera, bezeroen zalantzak eta arazoak konpontzeko Eneko izango da arduraduna; berak erantzungo ditu bezeroek bidalitako mezu elektronikoko eta sare sozialetako mezu guztiak.

Bestalde, esan bezala, gure enpresak administratzaile bat beharko du beste hainbat gauzen artean, diru sarrerak, irteerak, irabazirik eta galerak kontrolatzeko. Gure kasuan Irune izango da lan hau beteko duena. Betidanik diru kontuak asko gustatu zaizkionez, eta dirua aurrezteko metodo oso baliagarriak dituen, enpresari etekin handiena aterako dio. Gainera, oso txukuna eta arduratsua denez, dena gordeta edukitzeko eta arazorik ez izateko, dena Googleko kalkulu-orrietan jarriko digu besteei ikusgai.

Gure bileretan hartu ditugun erabaki eta proposatutako eskaera guztiak beste elkarkei azaltzea funtsezko jarduera bat da enpresak ondo funtziona dezan. Honetarako, Eider izango da erosketen eta negozioen ardura edukiko duena; hau da, enprekin kontaktu ofiziala duen pertsona. Betidanik, jendearekin komunikatzeko eta adostasunetara iristeko abilezia izan du, gatazkak saihestuz, eta horregatik lan honetarako egokia iruditzen zaigu. Honetarako, bileretan ibiliko da.

Azkenik, gu produkzioaren azken partea garenez, korreosera kaxak eramatea azken pausoa izango litzateke, eta honetarako, Klara izango da arduraduna. Bere gurasoek furgoneta bat dutenez, bertan kaxa gehiago sartu daitezke eta honela errazago eta azkarrago egingo dugu lana. Transporte hau, herriko dendetara eramateko ere erabiliko dugu.



Gure taldeko partaide bakoitzak lan espezifiko bat duen arren, oso garrantzitsua iruditzen zaigu denok dena egiten jakitea. Modu honetan, arazorik balego taldekideren batekin, ez genuke aurrera jarraitzeko oztoporik edukiko, eta hau oso garrantzitsua da gure enpresak arrakasta lortzeko.